

PETER B. KYNE

Garailea

**Peter B. Kyne-k englanderaz idatzia
eta ARGIAren irakurle batek euskeratua**

Inazio Mujika Iraolak prestatutako edizioa

EIZIE



Jatorrizko izenburua:
The Go-Getter
A Story That Tells You How to Be One



Diseinua: J.L. Agote

Itzulpena: Argia-ren irakurle bat

© Hitzaurrea eta edizioa: Inazio Mujika Iraola

© Argitalpen honena: EIZIE

Zemoria 25

20013 Donostia

ISBN: 84-609-????-?

Legezko gordailua: SS-????/05

Inprimatzaile: Itxaropena, S.A. – Araba kalea, 45 – 20800 Zarautz

Euskal itzultzaile ezezagunaren omenez

Zaila da imajinatzea nondik inguratu zezakeen joan den mendearen hogeita hamarreko urte hasiera haietan gazte euskaldun batek ingelesez idatzitako liburu bat. Edo ez zuen ingelesezkoa inguratu, gaztelaniazkoa baizik... Hori ez da hain zaila imajinatzen, izan ere Bartzelonako *Juventud* argitaletxeak argitaratuak baitzituen aurreko hamarraldian Peter B. Kyne-ren hainbat eta hainbat eleberrri. Kontua da behintzat inguratu zuela ingelesez edo gaztelaniaz 1921ean Estatu Batuetan *The Go-Getter* izenburupean argitaratua zen eleberrri labur bizia.

Beharbada, gazte lagunen batek emango zion haren aztarna gure gazteari edo irakurzale helduagoren batek bestela. Beharbada, liburu-dendaren baten erakusleihoan ikusiko zuen, demagun Donostian. Gipuzkoan behintzat. Tira, gerta zitekeen Madrilen edo beste hiri handiren batean ikasten ari zela ikusia izatea.

Baina inongo dudarik gabe gipuzkoarra da gure gaztea. Giputza hizkeraz esan nahi dut, eta Beterriko mugapetik oso urrutikoa ere ez. Hizkerak salatzen du.

Gaztea zela esan dut eta hori ere ezagun du itzulpena irakurrita. Oinarri sendoak ditu, baina hankamotz samar geratzen da inoiz edo behin esapiderean batean edo bestean, erabat doitu gabeko lumaren erakusgarri. Izerdi pixka bat aterako zuela iruditzen zait, zurruntasunik ez txertatzeko euskal ordainari. Sarri, esaldi luzeak eta laburtu egi-

ten ditu, oso gogoan du orduko irakurle euskalduna. Ego-
kitzaile da itzultzaile baino gehiago. Askotan ematen du
euskaraz sortutako lan baten aurrean gaudela. Izan ere,
bai hizkuntza bizia, bai ahozko iturri garbia elkarrizketeta-
tan pasarazten diguna. Badu giharra eta kontakizuna
aurrera eramateko jostun pultsua.

Aieruz eta suzmoz ari naiz, ordea, berak ez baitu ia
ezer argitzen: “Peter B. Kyne-k englanderaz idatzia eta
ARGIAre irakurle batek euskeratua”. Hori besterik ez.
Hortik ezin atera dezakegu ez oharra berak idatzi zuenik
ezta “englanderatik” zuzenean euskaratu zuenik ere. Kon-
tutua da behintzat liburua irakurri, gustatu, eta euskaratzea
erabaki zuela egunen batean. Euskara bera herdoiltzen ari
zitzaiola eta zertxobait lantzeko, euskaldunek katiximaz
haragoko irakurgai atseginik izan zezaten edo nik al dakit
zergatik. Kontua da, hortaz, garai hartan bizi zen –gazte
batzuek bizi zuten– euskal pizkundean murgilduta euska-
ra atsegin-soinekoz jantzita ikusi nahi izan zuela, eta lana-
ri ekin ziola.

Urte miragarri haietan, hiru egunkari ari ziren orri
bana hartuta euskarazko gauzak argitaratzen. Bilboko
Euzkadin Lauaxeta ari zen, Donostiako *El Dían* Luzear,
eta *El Pueblo Vascon* Zubimendi. Beharbada gure gazteak
horietako batean argitaratuak izango zituen artikulutxo
batzuk. Horietako batean izatekotan, *El Dían* seguruen-
a, gipuzkoarra izaki. Zubimendiren orria astean behin atera-
tzen zen eta asko berak betetzen zuen. *El Díar*ako idazten
ibili baldin bazen, Ander Arzelus ezagutuko zuen. Donos-
tiarraren itzulpenerako grina eta gazteak bultzatzeko aha-
leginaren berri jakinda, ez dirudi burugabea pentsatzea
Arzelusek berak bultzatu zuela lan hori itzultzeraz. Arzelu-
sek berak englanderatik itzuli eta argitaratu zuen, 1931n,
Dickensen *Eguerri Abestia* epeka. Lan gehiago ere agindu

zituen. Junes Vernerren *Larogei egunean, ludiari bira*, esate baterako. Inoiz ez zen argitaratu “goikoek” –euskara-ren kontuetan beti badago goikoren bat– hainbat aitzakia emanda ez ziotelako utzi. Baina goikoen epaia jaso aurretik agindu ziezaiokeen gure gazteari: “hi gazte, hire gustukoren bat, politta izan dadila, eta ez oso luzea”. Ezina gero etorriko zen. Ordurako ordea hasi-masietan edo erabat bukatuta, eta nonbait argitaratu nahi hark ere. “Ekatzak, gazte, Argian neronek argitaratuko diat eta”.

Aieruka ari naiz. Barkatuko didazue.

Hainbeste itzuli-mitzuli eman gabe, Arzelus bera ez ote lan honen itzultzailea? Hasieran hala pentsatu nuen. Hizkuntza gainetik aztertuta, ordea, ezinezkoa dela esango nuke. Honek erabiltzen dituen laburtze eta fonetismoak ez lituzke donostiarrak beretzat onartuko. Arzelusekin elkarlanean aritu zen beste bat, Joxe Migel Zumalabe. 1936ko zorigaitzeko liskarrean galdu omen zitzaion Junes Vernerren itzulpen bat. Hura gaztea zen. Donostiarra. Izan zitekeen. Nork daki?

Aieruka ari naiz. Ez ahaztu. Ez baitaukat bestelako daturik.

Dakidan bakarra da, gazte, zahar edo bien arteko, euskaldun batek, 1935 aurrean, Kyne bezalako best-seller idazle bat hartu, sona handiko liburua eskuratu eta euskaratu ondoren *Argiakoei* eman ziela. Eta *Argiakoei* 1935eko *Argia'ren Egutegian* irakurgai atsegin gisa argitaratu zutela, *Garailea* izenburuarekin. Egutegi hartan bertan orri osoko ohar bat erantsi zuten: “Garailea. Aurrreraxeago irakurri zenezateke izen onetako irakurgaia. Peter B. Kyne-k englanderaz idatzia da ta gero erderara itzulia. Onoko auek guziak ere idazle berarenak dira ta Editorial Juventud S.A-k (Apartado, 3 - Barcelona) argita-

ratuak: 5,90 laurlekotan: *El señor del Valle Solitario*; 5,50 laurlekotan: *Un corazón comprensivo*, *El rancho “Arroyo Chico”*, *El avasallador*, *Amanecer*, *Tambien ellos sirven*, *Los proscritos del paraíso*, *Tamoa*; 3,90 laurlekotan: *La cuesta encantada*, *El primero de a bordo*, *Cappy Ricks se retira*, *El orgullo de Palomares*, *Llovida del cielo*, *Todo un Hombre*, *El valle de los Gigantes*, *El capitán Scraggs*; 2 laurlekotan: *De un mismo barro*; Laurleko batean: *Los tres padrinos*, *El más feo*, *El Sheriff*”.

Ikusten denez, idazle oparoa behar du izan Kyne-k. Bere lan asko eta asko western-eleberriak dira, izenburuak berak daude esaten. San Franziskon jaio zen XIX. mendeko bukaera aldera. Bere lanik ezagunena eta famatuena *Kindred of the dust* izan zen hogeietako urteetan best-seller izatera heldua. Zinemarako gidoi idazlea ere izan zen. Gaur argitaratzen dugun *Garailea* eleberri honetako pertsonaietako bat, Cappy Ricks, beste eleberri batzuetan ere agertzen da, eta bere abenturak *Saturday Evening Post* aldizkarian argitaratu ziren aurrena epeka. 1957an hil zen Kyne.

Gauza bitxia da mundua, eta itzulinguru asko ematen dituen. 1921ean Estatu Batuetan argitaratu, Euskal Herrian 1935ean “gazte batek” ausaz ariketa gisa aldizkari xume batean euskaratua eman, eta oraintxe esku artean dudan gaztelaniako edizio batean jartzen duenez “un clásico del mundo de la empresa con más de 500.000 ejemplares vendidos en todo el mundo” bilakatua. Ez dago enpresaren azti-xaman batek hartzea bezalakorik liburuak abasto eta erruz saltzeko. Enpresaren xamana Alan Axelrod da eta gaztelaniako bertsio atera duen argitaletxea Al-gaba. 2003koa da eskuratu dudan edizioa, *El buscavidas* du izenburu, eta honako kopia hau erantsi diote azpian: “un relato clásico que cuenta cómo llegar a ser el número

uno”. Nonbait Axelrod jaun azti horrek ikusiko zuen eleberri honetan zeudela gisako enpresa batek behar duen langile eredu otzan eta onaren bertute nagusiak, eta, liburuaren bertsio bat eginez (alegia, jatorrizko testua ukitu eta zenbaitetan aldatuta!), boladan dauden enpresario nahi guztien gogo-jardunetarako oinarritzko testu bihurtua zuen, hitzatze lerdjario aholkuemaile nazkagarri bat erantsita.

Gorde gaitezen liburu bakarreko jendeaz...

Hain zuzen ere, hitzatze horrek erakutsi nahi duen handiustekeria guztien kontrako txertoa izan nahi du gure argitalpen xume honek. Itzultzaile gazte bat, ezezaguna, orain hirurogeita hamar urte, era honetako gauzarik egiten ez zen garaian, kontakizun atsegin bat hautatu eta eskaini nahi izan ziela orduko euskaldunei ospatzeko argitalpena da hau, orain guk orduko haren lekukoa jaso, eta, haren omenez –euskal itzultzaile ezezagunaren omenez– egindakoa.

Inazio Mujika Iraola

2005eko uztailean

GARAILEA

ARGIAren irakurle batek euskeratua

I

Kolka bere txitakin zaleki ibiltzen dala? Zalekiago zebillen bada oraindik egur salerosketan eta itxas-gaietan “Cappy Ricks” izenarekin ain ezaguna zan Alden P. Ricks jauna. Alaxe adierazi zion bere egur-lantegietako ordezkari zan “Egur-gaietako Ricks Lagundiko” zuzendari eta lendakari Skinner jaunari. Orixe bera zesaion ere itxas-gaietan ordezkari zuan “Izar Urdin Itxas Lagundia”ko zuzendari eta lendakari eta bere sui Matias Peasley kapitani.

Skinner jaunak Cappy Ricks-ek zesaiona itzik atera gabe entzun zion. Ez baizuan aidetasunik berarekin. Matias Peasley ordeza sua izan, eta anka bat bestearen gañean jarriaz, bere aitagiarrebaren asarreari ajolik egin gabe egon zan.

–Zu kezkatitz? Bizkarreko miñez al zaude edo Herbert Hoover jauna ez al zaizu ministrotzarako egokia iruditzen?

–Gazte, zure isekak besterentzat izan bitez! –zion Cappy-k indarrez–. Badakizu nere asarreak ez osasunarekin eta ez politikarekin zer ikusirik ez duala. Sutzen nauena zartu ondoren geiago balio ez duten gizonak nere inguruan ikustea da.

–Zein ordeza?

–Zu eta Skinner.

–Baña, zer egin degu ba?

–Zuek? Orain artu berriak ditugun ogeita bost itxasontzi oiek gure gain artzea onuragarria zitzaigula sinisterrazi, eta, orra, oien zuzendaritza gure gain artu degunera-ko... itxas-zergak zerurano iyo dituzte, ontzietako makina-zaleak oporrera jo dute, eta Japongo gure etxera bialtzen ditugun gazte txoro guziak arrotzen dira eta ez dakit zergatik, Japonen amerikar egartientzat egiten dan *whisky* guzia gutxitxo dute berentzat. Zartu eta gero gure otseñak urrutidatz bitartez uxatzera beartu nazute bion artean. Eta zergatik? Emen bakarrik erabili bear genituzkeen artu-emanetan sartu erazi gaituzutelako. Urrutiko artu-emanak ez ditezke etxekoak bezela aztertu.

Matias Peasley-k, berari ezarri nai zitzaizkan erruak iñoren bizkarrean botatzeko eskua jasoaz, esan zuan:

–Ogeita bost itxasontzi oien zuzendaritza gure gain artzea on zitzaigunik ez dizugu guk sinisterrazi: Irurok ala uste izan degu, obeto esateko, zuk ala sinisterrazi didazu, ni aurren-aurrenetik asmo orren aurka nintzan eta. Amar urte dira zuk artu-emanen ardura utzi zenula eta ordutik itxas-gaietan izaten ditugun ezbear guziak neretzat izaten dira, adiskide.

–Ustez, bai; izatez, ez. Edo zer nai dezute zuek, eskulana utzi nuen bezela buru-lana ere uztea? Gizona! Nere diru guziak ezarririk daukaten artu-emanetan iritzia izateko eskubidea ere ukatuko ote didazute? Egia da, artu-eman guziak zuek zuzentzen dizkidatzute, ez oso gaizki gañera geienetan beintzat, baña... jem! Zer gertatzen zaitzu, Mat? Eta zuri, Skinner? Mat-ek errurik izaten dunean, zuk zuzendu bear dezu okerragorik etorri ez dedin, eta Skinner-ek izaten duanean, berriz, zuk, Mat. Edo gizonak

aldez aurretik ezagutzeko begia galdu al dezute, edo ez dezute iñoiz izan?

–Shanghai-ko Henderson-gatik mintzo zera noski, ezta? –galdetu zion Skinner-ek.

–Bai, Henderson-gatik mintzo naiz. Eta zuri dasaizut, gure artu-emanak itxasketa-labur edo kabotajekoak baka-rrik izan balira eta Pazifikoren aruntz-onuntza ori gure gain artu ez bagenu, ez genun gaurko egunean Henderson ori dala bide dabilkigun aña kezka ibilliko.

–Genun egur saltzallerik onena berorixe zan! –erantzun zion Skinner-ek–. Asia aldean asko eta asko salduko zuala uste nuen.

–Henderson pizkorra da. Emen, etxean mandatarari bezela sartu zan, eta denborarekin, berriz, egur-salketako sa-llan zuzendaritzaraño iritxi zan. Kaiean ere leial jokatu zuala badakizu –esan zuan Mat Peasley-k.

–Alaxe da, baña Txinara biali aurretik ezer esan al zidazuten neri?

–Ez. Ez al naiz ba ni “Izar Urdin Itxas Lagundi”ko zuzendaria? Zuk ezer esan zenezakien baño askoz lenagotik zan Henderson Shanghai-ko gure ordezkari.

–Ez al nizun nik zuri esan Henderson etzala leku orretarako egokia?

–Bai.

–Oraintxe esango dizutet ba Shanghai-ra biali zenute-nean ezin esan nezaizuteken beste zerbait. Henderson langille jatorra izan da, langille leiala, baña nagusiaren babesean. Ogei urte luzetan saiatu nintzan ni aren burutik txorakeriak uxatzen, baña alperrik eta orra orain eun eta ogeita amar milla dollar ostuta nola iges egin digun.

–Barkatu, Ricks jauna –esan zion Skinner-ek–, Henderson-ek egin zitzaken lapurretai erantzuteko milloi laurden bat dollar dauzkagula gogorazi nai nizuke...

–Ixo, Skinner! Itz bat ere! Etzazu beintzat aztu zuk eta Mat-ek ezer jakin gabe egin nuala nik ori. Eta zuk, Mat, seme maitea, gogoan izan len zer esan didazun: amar urte dirala artu-emanen ardura utzi nuala eta ez detala zure idazkolako artu-emanetan zergatik sartu, alegia...

–Egia diozu, naiz eta Henderson-ek lapurreta ori egin, zuri eskerrak ez degu batere galerarik Shanghai-ko gure etxean –erantzun zion Mat Peasley-k–. Nola-nai dala ere ekingo diogu guk lanari. Henderson edalea eta jokalaria zan eta irabazten zuan baño diru geiago zijuakion. Etzuan artu-emanen ardurik izaten eta azkenean txorakeri bat egin zun: dirua artu eta itzuli. Guk ez ba jakin ori egingo zuanik. Eta gizon bat gure ordezkaritzarako aututzen degunean, autu edo ez autu, zirt edo zart egin bear. Artzen badegu, ona da ustean noski. Gai orrekin eztabaidan orain aritzea alperrikakoa da beraz. Orain egin bear deguna Henderson-en ondorengo bat arkitu, eta lenengo itxasontzian Shanghai-ra biali.

–Ederki, Mat –zion maitasunez Cappy-k–, ez dizut errurik ezarri nai. Ez naiz goxoegi aritu nere jardunaldian. Nik aña urte izaten dituzutenerako eta neri aña lapurreta egiterako, ikasiko dezute gizonak ezagutzen eta garrantziko lekuetara zein biali bear dan jakiten. Eta zuk, Skinner, ba al dezu norbait Shanghai-ra bialtzeko?

–Penaz baña ezetz esan bear. Nere sallekoko guzik gazte-
txoak dira ortarako.

–Gaztegik? Zer esan nai du itz orrek?

–Ortarako gai litzakena da, baña Andrews gaztetxoa da... Ogeita amar urte baizik ez dituala uste det.

–Ogeita amar urte beraz, e? Ori eragozpena nola izan diteken ez dakit. Ederki oroitzen naiz zuri amar milla dollarreko saria eta milloika askoren erantzun bearra eman nizunean, ogeita zortzi urte baizik etzenitula.

–Bai, jauna, alaxe da baña... Andrews jaunak... ez du oraindik pruebik eman...

–Skinner! Ez dakit etxe onetatik zergatik etzaitudan bialtzen! Andrews eztala proatu diozu. Zergatik ez? Zergatik eta zertarako daukagu gure artean proatu gabeko jendea? Erantzun nazazu! Tut! Tut! Geldik mingaña! Kistar bezela dituzun bearkunak bear bezela bete izan baze-nitu, 1919 edo 1920an egurra nai baño errexago saltzen zan garai artan, urte beteko oporra egingo zenuen, eta, bide batez, Andrews proatuko zenun gero nolakoa zan jakiteko.

–Zorionez ez nuan ba ori egin. Ondo dakizu bolara onaren ondoren oso txarra izan zala. Ez dakizu ondo zenbat lan egin bear degun orain gure itxasontziak egurrez beteak ikusiko baditugu...

–Skinner! Zu nerekin eztabaidan? Zenbat urte zituan Mat Peasley-k “Izar Urdin Itxas Lagundia” bere esku utzi nuanean? Ogeita sei baizik ez. Skinner, nik uste ez bezelako ergela zera. Zu bezelako gizonak zerate matxinada eta oporketa sortzalle, lantegi eta salerostegietara, erantzun bear aundietako tokietara eta zerbait irabazi diteken tokietara ille zuri eta bizkar makurtutako gizon adindunak eraman bear diralakoaren iritzia daramazutelako. Gaizki zaude, ordea, Skinner. Gaurko egunean, gazteak bear dira; gazteena da mundua, Egun-eguneko gizonak ogeita amar urtez bekoak dira. Mat, zer derizkiotzu, bialiko ote genduke Andrews Shanghai-ra?

–Balioko duala uste det.

–Zergatik uste dezu balioko duala?

–Balio bear dualako. Oitutzeko ainbat denbora egin du gure artean...

Cappy-k etzion utzi jarraitzen.

–Garrantzi aundiko kargu ori bere gain artzen ausartuko al da? Ori jakin bear da eta ez zuk eta Skinner-ek ainbeste aitatzen dezuten oitura.

–Ez dakit ausartuko dan. Balioko duala deritzat. Gizon atsegiña da.

–Ondo dago, baña, biali aurretik, naimen aundikoa eta ausarta dan edo ez jakin bear degu.

–Beraz –esan zuan Mat-ek exerita zegon alkitik altxeaz–, nik ez det zer ikusirik Shanghai-ko arazo orrekin. Zu asi zeranez, zeorrek izendatu bear dezu Henderson-en ondorengoa.

–Iritzi ortakoa naiz ni ere –esan zuan Skinner-ek–, nere ergeltasuna dala-eta, ez naiz Andrews-ek izan dezaken naimen-indarra zenbaterañokea dan neurtzeko gai eta. Orain dagon lekurako egokia da, baña...

–Baña egokia izango al da gugandik sei milla kilometroz urrutiratua arkitzen danean, berez gauzak erabakitze-ko eta bakoitzari duan garrantzia emateko? Orixe orain jakin bear deguna, Skinner.

–Zeorrek probatu zenezake.

–Nere kontu, Skinner! Shanghai-n gure ordezkari izango dana gizon jatorra izango da, arraiepola! Iru txar izan ditugu dabaneko. Ez genezake orrela jarraitu!

Eta besterik esan gabe, oñak mai gañean jarriaz eta gorputza atzera zuala, patxaran jarri zan Cappy.

–Andrews-eri zer prueba jarri oldoztu eziñik dago. Asmatuko du zerbait –esan zion aopean Mat-ek Skinner-eri, gelatik irteterakoan.

II

Idatzia zegon, ordea, Ricks jaunari bear zan lasaitasunarekin oldozten etzietela utziko. Amar minutu ziran geienaz ere ala zegola urrutizkiñez deitu ziotenean.

–Zer da? –galdetu zuan Cappy-k abots garratzarekin.

–Gazte bat idazkolan. William E. Peck izena omen du, eta zurekin itz-egin nai lukela dio.

–Etorri dedilla!

Laister zan mandataria William gaztearekin. Atean sartu zanerako Cappy-ri begira gelditu zan burua makurtuaz batean.

–Ricks jauna, William E. Peck naiz. Milla esker orren aguro artu nazulako.

–Hem! Exeri zaite, Peck jauna.

Gela osoa iragan bear izan zuan Peck jaunak Cappy-k eskeñi zion tokian exeriko bazan. Orduan ikusi zezakean Peck-ek errenka egiten zuala eta besoa ukalondotik ebakia zuala. Zergatik zuan bereala igerri zitekean, txamarrean baizeramakin gerran zauritua izan zanaren ezaugarria.

–Ea ba, Peck; zer egin nezake zure alde?

–Lanerako artu nazazun etorri naiz.

–Arraioa, ezetzik esan ezin banezaizuke bezela esaten didazu gañera.

–Alaxe da. Ez det ezetzik itxaron.

–Zergatik? –Williamen arpegi beltz baña atsegiñak irripar gozo batek alaitu zuan une artan.

–Saltzallea naiz, Ricks jauna –erantzun zion–. Bost urtean ikusi baidet saldu diteken guzia saltzen badakitela. Baña, ala ere, ikusi det zerbait saldu nai badet lendabizi salgaiaren nagusiari zerbait saldu bear diotela eta... nero-ni eskeintzen natzaio... Neronen burua salduaz asi nai det beintzat.

–Seme, zeureganatu nazu. Esazu, noiz eman zizuten Laterri Batuetako gudarozterako lekua?

–1917ko Jorraillaren 7ko goizean, jauna.

–Orrenbestez ixten degu gure ituna. Neroni ere “Colon-en Zaldunak¹” zeritzanean sartu nintzen, Kearney-n, baña gero itxasoratzan utzi etzidatelako alde egin nuan. Ala ere egun aiek pozik gogorazten ditut.

Izketaldi arrek biziro alaitu zuan Peck jauna. Eta bere edestia esaten asi zan:

–Gerra aurretik Portland Lagundiakin aritu nintzan ego eta sorkalde aldean egurra saltzen. Orain aste batzuek eman zidaten Letterman Gudalburuaren gaxoetxean Estaduko Seguroaren erdia jasotzeko agiria. Amar milla dollar ziran. Besokoa aguro joan zan, bereala moztu zidaten eta; anka, orde, autsia egon, eta sendatzeko egunak bear, eta gañera bestea baño zerbait motxagoa gelditu zait. Orrela negoela biriketako gaitza sortu zitzaidan, eta urte betez biriketako gaitzak sendatzen dituzten Fort Bayard gaxoetxean egona naiz. Ala ere, sendatu naiz eta nere birikak len bezelaxe daude sendagille agiriak diotenez.

¹ *Knights of Columbus*: Elkartea katoliko ongintzakoa, New Haven-en (Conecticut-en) sortua 1882an.

–Lanerako gogorik eta almenik bai al daukazu?

–Bai, Ricks jauna. Burua eta eskuiko besoa sano dauzkat. Oldoztu eta idatzi nezake beraz, eta, anka bat bestea baño motxagoa badet ere, pazientzi aundikoa naiz eta edozeñek añako gaitasuna badet erosleak arkitzeko. Nerezako lanik bai al dezu?

–Ez, Peck jauna. Ez naiz iñor ortarako. Amar urte badira lantegi auen zuzendaritza utzi nuala. Orain zauden gela au batekin eta bestearekin itz-egiteko baizik ez da... Neri datozkidan eskutitzak jasotzeko eta kaleko kontuak jakiteko lekua edo. Skinner jaunarekin itz-egizu.

–Skinner jaunarekin itz-egin det, baña ez dit itxaropen aundirik eman. Beso uts onekin biotza ikutu nai izan diotela uste izan du. Esan zidan len zeuzkan saltzalleak nora biali etzekiela zegola. Edozein lan eskatu nion, egurrak zenbatzen eta neurtzen nekiela eta abar esanaz...

–Eta alare etziñun artu?

–Ez, jauna, guzia alperrik izan zan.

–Ederki, zoaz nere sui Peasley kapitanaarengana. Ura da gure itxas-gaietako zuzendaria eta baditeke...

–Itz-egin det arekin ere. Oso ona izan da nerekin. Beste amar edo amaika gudari izandutako dauzkala esan zidan biali nai ezik, eta, ni pozik artuko baniñuke ere, oraingoz beintzat eziñekoa dula esan dit.

–Orduan... Zergatik etorri zera neregana?

–Aiek ori esan arren, zuk zerbait lan ematea nai detelako. Etzait ajola edozein lan izanda ere, egiteko gai bainaiz beintzat. Nik egin nezakena bada, iñork baño obeto egingo det, eta lan artarako gai ezpanaiz, berriz, zuei bialtzen lanik ez ematearren, neroni juango naiz. Ez det iñoren errukitasunetik bizi nai, lengoa ezpanaiz ere.

–Ikusten det –erantzun zuan Cappy-k txirrin bat jotzen zuan bitartean.

Laister zan Skinner jauna gela artan. Begiratu zorrotza egin zion Peck-eri. Cappy jaunari, begirunez, zer nai zuan galdetu zion.

–Skinner lagun maitea, Andrews Shanghai-ra bialiko ote degun pentsatzen egon naiz, eta ona zer erabaki detan: angio idazkola edozeñen mende dagolako edozein eragozpen izan genezake berriro ere; orregatik, ba, norbaitek azkar juan bear du ara. Dijuala beraz Andrews lenengo itxa-sontzian, betiko ezpada ere oraingoa egiteko beintzat. Arako gai ezpada, onera etorri diteke berriro, onerako jatorra da-eta. Bitartean... hem!, hum!... Skinner lagun zarrara, ar zazu gazte au zure idazkolan eta eman ezaiozu leku egoki bat zenbaterako gai dan jakin dezagun. Asko poztuko nitzake orixe egingo bazenu, Skinner.

Skinner jaunaren naimena menderatua zegon. Ederki zekin ori berak ere. Bai Peck-ek ere ederki zekin ori, gudaroztean izana zanez baitzekin goitik bera datozen oar txikienak ere agindu bezela artu bear izaten dirala. Irripar gozoa egin zuan, beraz, Skinner-eri begiratuaz.

–Ederki, jauna. Lan saria zenbatekoa da?

Cappy-k, eskuak jasoaz, arazo arekin zer ikusirik etzuala adierazi zion.

–Ez, ori ez baida nere egitekoa. Ez nuke iñolaz ere zure gauzetan sartu nai. Jakiña, merezi aña sari emango diozu, geiegirik gabe.

–Entzun zuk orain, gazte: emen gauza guziak egiñak arkituko dituzula uste badezu, oker zaude. Emen lan asko eta ondo egin bear da zerbait izateko. Zerbait gaizki egi-ten dezunen, lenengoan, oartu egingo zaitugu; bigarren-

an, illabeteko lan-saria galduko dezu, eta, irugarrengoan, lanik gabe geldituko zera. Emen ez dago txantxarik. Entzun dezu?

–Bai, jauna. Gaurkoz lanerako lekua baizik ez det nai; ori izan ezker, Skinner jaunaren biotzerako bidea neronek arkituko det. Skinner jauna, milla esker baimena eman dezulako. Zure uste osoaren jabe izateko alegiñean saiatuko naiz.

“A zer nolakua degun au ere! –zion aopean Cappy-k–. Azkarra degu noski. Skinner gizarajoa! Noiz edo noiz zer-bait gauza berri bururatuko balitzaikek, ilko itzakek! Orain ere erneazten ago mendaratu autelako. Gorriak ikusi eraziko dizkiok gazte oni”.

Peck zutik zegon, zai bezela.

–Noiz etorri bear det, jauna? –galdetu zion Skinner-eri.

–Nai dezunean.

–Orain amabiak dira. Bazkalduta, ordu batean etorri niteke. Egun erdia bakarrik galduko det ori eginda.

Gero, Cappy-ri begiratzuz, nunbait irakurri zuan au esan zion:

–“Eguzkiaren ezkutatzerakoan, salgaiak garestitu baidira, eta gutxi edo ezer irabazi ezpadezu, esan etzerala bizi; egun guzia galdutzat eman ezazu”.

Ori entzundakoan Skinner bere idazkolan sartu zan. Atea itxia zegola nabaitu zuanean, Peck-ek begiak goruntz jaso zituan bere bildurra erakutsiaz.

–Asiera txarra degu noski.

–Zuk lana nai zenun. Nik lan on bat izango zenula ezin ba esan, Skinner eta Mat Peasley ezin nitzake ezertarra beartu-eta. Badakizu William...

–Bill Peck esan oi didate etxeokoak.

–Ederki, Bill.

Cappy-k, exeri alkia utziaz, errukizko begiratua egin zion Bill Peck gazteari.

–Ez naiz zutzaz aztuko, gazte. Zuri lagundu bearrean naiz. Ez uste ordea izan au gerran zauritutakoen bil-lekua danik... Skinner-ek zer lan sari emango dizun jakin nai nuke. Nolanai dala ere, ematen dizuna ematen dizula, itzik atera gabe artu ezaiozu, eta, garaia irixtean, merezi badezu beintzat, ni izango nazu bitartekorik leialena.

–Eskerrik asko, jauna. Oso ona zera neretzat. Jaunak lagun dagizula.

Besterik esan gabe jua zan Bill Peck gaztea. Jua zannerako, Skinner jauna etorri zan. Zerbait esateko aia iriki ere egin zuan, baña etzion Cappy-k ezer esaten utzi.

–Ez itzik, Skinner lagun zarra! Badakit zer esan nai didazun eta arrazoi izan zenezake baña... hem!, hum!, entzun nazazu. Zuregana jua danean nolaz ez dezu artu zurekin, gerran zauritutuko gazte ori? Oraindik begi aurrean daukat bere ixtar autsiakin, eta ezkerreko esku gabe... Gi-zarajoa! Eta, ala ere, lanerako irrikitzen. Zu berriz jela kozkor bat bezela, biotzik ez dezula dirudi.

–Biotz ona gauza bat da, baña biotz onak ez du artu-emanekin zer ikusirik. Orain dala gutxi, berreun eta be-deratzi gerran zauritu artu dituzu zure lantegietan auek artzeko langille jatorrak bialita, eta Washingtonerako orrela artu zenitunak dabaneko eskean dira.

–Noski, ba. Oraintxe matxinada zaleak-eta aspertuta naukate. Noiz nai oporrean dira. Oiekin ez diteke pakerik, ez zorionik. Orain artu ditudan langille oiek izango dira matxinada zaleak atzeratuko dituztenak.

–Bai, bai: ala baderitzaizu sarjento bat jarriko degu sail bakoitzean buru bezela. Goizian diana eta gauean retreta ere jo diteke, eta astean bein edo... Besterik ez bada ere, Aberriaganako maitasun ageria ekarri digute beintzat... eta badakizu egun osoak zertan egiten dituzten? An egindako gauza jakingarriak edesten... diotenez...

–Orrek, ordea, ez du Peck-erekin zer ikusirik. Aizu, Skinner, *Gudaretxeko ipuiak*² deritzan liburua irakurri al dezu?

–Ez det letzeko astirik.

–Orain bertan erosi bear dezu ba liburu ori, eta “Tommy” deritzan ipuia irakurri bear dezu.

–Begira, Ricks jauna, Peck etzait batere gogoko. Lana eskatu zidan eta ezetz esan nion. Mat Peasley-k ere ori bera egin zuan. Eta orrek, bere burugogortasuna ederki erakutsiaz eta guri jaramonik egin gabe, zurengana jo du. Zuk, lanerako artu berriz. Damutuko zaizu oraindik.

–Skinner! Skinner! Begira neri! Badakizu zergatik artu erazi nizun gazte ori?

–Noski; biotza argizaia baño xamurragoa dezulako.

–Egi-egia diozut, egunean baño egunean ergelago zaudede. Ezezkorik izango etzuala ben-benetan uste zuan gazte bat nola utziko nuan ba kale gorrian? Peck gudari jatorre-netakoa izana degu gañera uste detanez. Bai al dakizu zuk zer nai dun eta zer asmo ditun. Gizona, gizona! Zuk badakizu zer egin dun! Zu eragozpen ziñanez, zure aunditasun eta guzti bazterreratu. Gazte orrek ogibidea ederki irabazia du, gizona. Zer lanetan jarri bear dezu?

² R. Kipling-ena da delako liburu hori: *Barrack Room Ballads*.

–Andrews-en tokian.

–Egia, aztuta negon. Ez al dauzkazu gañera pillatuta millaka dollar askoren zugatz usai txarreko saldu eziñik?

Baiezkoa egin zuan buruarekin Skinner-ek. Cappy-k pozik jarraitu zuan izketan.

–Eman zaizkiotzu, ba, eman Peck-eri eta baita gañera-ko saldu eziñik daukazun egur guziak ere... Ulertzen didazu noski, Skinner.

Skinner-ek parrez erantzun zion:

–Eta saltzen ez baditu kalera, e?

–Baietz uste det, oldozpen utsak tamalduzik uzten banau ere. Baña saltzen baditu, Andrews-ek zuan lan-sari bera izango du. Obenlari izan giñezke, baña beti zuzen jokatu bear degu.

Eta bizkarrean eskua jarriaz jarraitu zuan esanaz:

–Olaxe ba, lagun zar, hem!, hum!, barkatu azkartxo ibilli banaiz... hem!, hum! Eta entzun ondo, Skinner: Peck-eri eman bear dizkiozun egur txar oiek garestiegi jartzen badituzu, zeorri kalera. Zuzen eta garbi jokatu. Azpikeria besterentzat utzita. Gogoan izan Peck-en beso erdia Prantziko lurretan gelditu zala.

III

Eguardiko amabi eta erdietan, California kale zear Cappy bazkaltzera zijoalarik, Bill Peck arkitu zuan, eta onek, gelditu araziz, txartel bat erakutsi zion.

–Ze derizkiozu, jauna? Ez al dago ederki egiña?

Cappy-k auxe irakurri zezakean:

EGUR GAIETAKO RICKS LAGUNDIA

California kalea, 248

SAN FRANZISKO

Ordezkarria: William E. Peck

Zuk nai dezuna iltzeak sartu ditezkena bada... guk daukagu!

Astiro aztertu zuan Cappy-k Ricks-ek eskuartean zeukan txartela. Ederki irarria zan. Ez da alako lana ordu-erdi batean egiten.

–Bill, lapur batek besteari esan oi dion bezela esan akidazu egia... Noiz bururatu zitzaizun gurekin lan egin bear zenduala?

–Astetxo bat baizik ez da.

–Gudaritzan aginterik bai al zenduan?

–Ez, jauna, ez, gudari utsa nintzan.

–Ezin sinistu det. Ez al zizuten iñoiz aginpiderik eskeñi?

–Askotan, baña aginpidea artzekotan, nere gain eta nere gogoz arturik neukan lanik politena utzi bear. Ez ba garrantzi aundiko lana zalako baña..., bai nere gogokoa. Zugaitz adarrakin estalita etsaiak zeuden tokiraño iritxi-az, etsaien soldadu zintzoenak iltzen nituan. Askotan bururatu zitzaidan lan ura uztea, baña zenbat amerikarren bizitza gaizkatzen nuan ikusirik, neretzat arrixku aundikoa izanagatik, beti lengora jotzen nuan.

–Gudaritzara gaztetan jua izan baziña, gaur gudalbururik aintzatuena izango ziñan, Bill. Zugaitz usaidunak saltzeko oiturarik bai al dezu?

–Ez. Zer zugaitz-mota da ori?

–Californiako Humboldt-en jaiotzen dan usai txarreko piñu bat da ori: egur txarrekoa eta usai txarragokoa. Skinner-ek lanik zallena emango dizu eta ori saltzen ain zalla da.

–Iltzatu al diteke?

–Ori bai!

–Egur ori, noizik beinka bederik, erosten dutenak ba al dira?

–Bai, noiz edo noiz gure saltzalleak tontoen batzuk arkitu oi dituzte. Zorionez egur ortatik gutxi daukagu, baña gure mendizañak orrelakoren bat ikusten duanean txarra izanagatik beti botatzen dualako, gure saltzalleak ezin saldu ala beti izaten degu.

–Oso garesti ez dan guzia saltzen dakit nik, jauna.

IV

Bi illabete ziran Cappy Ricks-ek Bill Peck ikusten etzuala. Saltzalle on batek jakin bear ditun zertzelada gu-
ziak ikasita, Utah, Arizona, Mexiko eta Texas aldera artu
baitzuan. Aguro asi zan lanean Bill Peck gaztea. Salt Lyke
City-n egur txarrenetakoa saldu zuan lenbailen bialtzeko
urrutidazkiz eskaturik. Ogden-en Skinner-ek ezertxo saldu
ezin izan zion bati asko eta asko saldu zion. Arizonan
erosle berri asko arkitu zituan; baña Bill Peck-en saltzeko
trebetasuna ederkiena Texasen ikusi zitekien, asko eta
ederki saldu baitzuan. Mea zuloetako zutikakoak-eta saldu
oi zituan bereziki, eta ainbeste eskaera egiten zitun, Skin-
ner-ek beste egur mota batzuek saldu bear zituala agindu
zion: piñuak, Douglas eta gorri motak. San Franziskora
itzultzerakoan, Angeles erkian gelditu zan an ere usai txa-
rreko egur ori ausarki salduaz. Skinner-ek bialtzeko agin-
dua zekarkion urrutidatzia artu zuanean, Cappy-rengana
juanaz esan zion:

–Peck laguna egur saltzalle jatorra degula aitortu bea-
rrean naiz. Bost erosle berri arkitu dizkigu, eta urrutidaz-
ki onen bitartez egur usaiduna eskatzen digu berriro. Urte
berritatik sari geiago eman bearrean naiz noski.

–Baña, Skinner, urteberrik arte zergatik itxoin? Ema-
teko ortan beti atzera ikusten zaitut. Peck-ek sari aundia-
goa merezi badu, zergatik ez bertatik geitu? Peck-ek lane-

rako gogo geiago izango du, eta, onenean, gizon ona zera-la sinistuaz maite egingo zaitu.

–Tira, ba. Andrews-ek zuan lan-sari bera izango du Peck-ek aurrerantz.

–Gezurra dirudi, Skinner, beti berdin ari bear zurekin. Ez dezu ba zorrek esaten Peck Andrews baño saltzalle obea dala?

–Ala uste det, bai.

–Zuzen joka zazu ba, eta ari baño geiago ordaindu ezaiozu! Ez gañera emendik aurrera, lanean asi zanetik baizik. Eta zoaz emendik, erneazten jartzen nazu-eta. A, aizu! Andrews ondo ari al da Shanghain?

–Urrutidatz lagundiak aberastuko ditu beintzat orrek. Astean iru edo lau urrutidatz bialtzen dizkigu, eta gauzak berez erabakitzen ez du iñoiz ikasiko. Mat Peasley-k Andrews orrekin ez du oso pozik izan bear.

–Orrela al gera! Mat-ek errudun ni egin bearko nau, jakiña. Egia gañera, neronek biali erazi nuan; baña... gogora zait, Skinner, Andrews aldi baterako baizik ez genun biali.

–Bai, alaxe da.

–Aren ondorengo bat billatu bearrean naiz, beraz, Mat “esan nizon nik” esanaz etorri etzaidan. Peck ona izango litzake Shanghairako, baña geiago proatu nai nuke... Aizu, Skinner, txarro urdiñakiko prueba egingo ote degu onekin?

Skinner alaitu zan ori entzundakoan.

–Bai, baña lendabizi dendariari eta txinelai adierazi zaiezu, bestela badakizu ze neke datorzken.

–Bai, bai. Beraz, zuk igande eguerdiko ordu baterako Peck zure etxera eraman erazi zazu, gañerako guzia nere gain utzita.

Skinner-ek par gozoa egiñaz baiezkoa esan zion.

V

Larunbatean etzan Skinner idazkolara azaldu. Bere ordezkoarekin itz-egin zuan, ordea, urrutizkiñez; ondoezik zegola esan ere. Peck-eri mandatua biali zion egun artan berarekin itz-egin nai zuala, baña, gaxotu zanez, etzezakela eta astelenean berriro kanpora juan bear zualako nai-ta-nai-ez igandean itz-egin bear ko zutela esanaz. Peck-eri etzion ajolik egun batean edo bestean izan, eta igande eguadiko ordu batean jutekotan gelditu zan Skinner-ek ala esan ziolako.

Igande eguadiko ordu bata zan Peck Skinner-en etxera iritxi zanean. Skinner oiean izperringia irakurtzen ari zan. Etzeukan gaitz itxurarik, baña, ala ere, Peck-ek Skinner-eri lenbailen sendatzea Jaunari nai zekiola esan zion. Obeto zegoela esanaz bere artu-eman arazoai buruz mintzatzen ari zitzaion. Izketa-aldean gogoz ari ziranean urrutizkin txintzarria entzun zan, eta Skinner-ek urrutizkiña aldamenean zeukalako bereala erantzun zuan.

–Tamal det, baña ezin nezake; oeraturik nago eta ezin irten ninteke. Peck ementxe dago, ordea, eta onek egin dezaizuke ori.

–Pozik gañera! –esan zuen Bill Peck-ek–. Zein il bear det eta bere gorputza nun utzi bear det? Ricks jaunaren naia izan ezker...

–Ja, ja! –algara gozoa egin zuan Skinner-ek.

Eta Cappy-k ala parra egiteko zer zuan galdetu zione-an esan zion:

–Peck jaunak dio edozertarako gertu dagola. Ea nor il bear duan galdetu du. Ja, ja! Peck, Ricks jaunak zurekin itz-egin nai du. Tori urrutizkiña.

–Arratsaldeon, Ricks jauna.

–Kaxo, adiskide. Gaur arratsalderako zer asmo dituzu?

–Bein Skinner-ekiko egitekoak bukatu ezker, ezertxo ere ez. Lan-saria askotxo ere geitu dit eta oso pozik nago. Eta Skinner-en biotz ona badakust ere zuk zer ikusia...

–Tut, tut! Ixilik ortaz! Ezta itz bat ere! Irabazi dezulako dezu ori. Baña nerekin ain adiskide zeran ezker, mesede bat eskatu bear dizut. Ez det iñor bialtzeko eta zuri orrelako bat egin eraztea egoki iduritzen ezpazait ere... hum!... hum!... Zera... esan nai nuke...

–Esan lasai, ez nazu asarretuko, Ricks jauna. Ez naiz zenbait bezin arroputza.

–Eskerrik asko, Bill. Asko poztutzen nau zu orrelakoa izateak. Goazen, ba, arira. Gaur goizean eleizatik atera naizenean eta kaleak zear nebillelarik, Stockton eta Powell kaleen erdian arkitzen dan Sutter kaleko denda batean, Merkatu kalearen aurrez-aurre, txarro urdin bat ikusi det. Eta txarro urdiñak nere gogoko izaki. Gaur ikusi detan txarro ori ez da oso ederra, ezta ikusgarrietakoa ere, garestia ezin beraz izan; baña nere ezagun batek txarro ori bezelako beste bat du, eta ori nai luke orain pianoaren alde bakoitzean txarro berdiñak jartzeko. Ona ordea zer gertatzen zaidan. Gaur gaueko zortzietan Santa Barbara aldera ateratzen dan trena artu bear det len esan dizuten ezagun orren eztai-urteurrena edo jaitzen dutelako. Eta

nere alabak tankera ortako oparitxoa egitea litzakela ego-kiena esan dit.

–Bai jauna, bai, zuk txarro urdin ori zerekin eraman nai zenuke gaur Santa Barbarara. Eta gaur bertan erosi bear nai-ta-nai-ez, biar, dendak iriki arte utzi ezkerro, berandutxo litzake-eta.

–Orixe, bai. Badakizu beraz gaur bertan bear detala. Atzo ikusi izan banu, atzo bertan erosiko nuan, eta ez nizun zuri orrenbeste lan emango.

–Ezaugarri geiago eman bear dizkidatzu. Esan didazu ze txarro nai dezun... Ez, ez didazu oraindik esan. Esaidazu ze urdin duan, urdin asko dira-eta, ze neurrikoa dan, ze zabalero dun gutxi gorabera. Xaplana edo luzea da? Urdin argia edo illuna?

–Txarro urdin-argia da eta marrazki japondarrez apaindua dago. Ez dakit nolako marrazkiak diran, baña loreak eta txori irudiak beintzat baditu. Ogeita amar zentimetro luze eta amar zabal izango da.

–Ederki, jauna, ekarriko diot.

–Eta zortziak amar gutxiagotan ateratzen dan trenera eramango al didazu? Oiakiko gelan egongo naiz.

–Bai jauna, eramango diot.

–Eskerrik asko, Bill. Ez dezu noski ortarako diru asko bearko eta gaur txautzen dezuna biar nere izenean etxeko diruzaiari eskatuko diozu.

Berriro itz aspertu bat egin zuan Skinner-ekin, eta kaleratu zanerako irurak ziran.

Stockton eta Powell kale bitartean zegon Sutter kaleko etxe sallera juan zan zuzenean, eta, denda guzietako

agertokiak ederki miatu arren, etzuan Cappy Ricks-ek nai zuan txarrorik billatu. Ez eta antzekorik ere.

“Gure agureak beste tokiren batean ikusiko zian txarroa –zion berekiko Bill Peck-ek–, edo bestela etziot ondo aditu. Berriro galdetu bearko ziot”.

Bai galdetu ere, baña alperrik, etxean neskamea bakarrik zegon eta etzekin Cappy Ricks nora juan zan ez noiz etorriko zan. Sutter kalean barrena dabil orain berriro Bill Peck. Ez du agertokirik begiratu gabe uzten. Powell eta Bush kaleak ere miatu zituan, eta, ez arkitu arren, etzuan etsitzen. Korreo kalean ere, ezer ez. Buru gogor xamarra izan arren, aspertu zan gure gizona; baita nekatu ere ainbeste goraberakin. Alako batean, ordea, Grant egurastoki inguruan, Geary kaletik barrena zijoala, orra nun ikusten dun txarro urdiña. Ori ote da, ordea, Cappy Ricks-ek nai duana? Begira-begiraka egon zan eta “auxe dek” esan zuan alako batean.

Atea irikitzen asi zan, baña itxia zegon ate ura. Aldi batean ate joka ere egon zan norbaitek irikiko ziolakoan, baña etzan an iñor, itxuraz beintzat. Ate-gañean zegon idazkun bati begira jarri zan eta auxe irakurri zuan:

BITXITEGIA B. COHEN

“Gaitzerdi, zer edo zer bazekiat orain”, egin zion bere buruari, eta errenka-errenka Palace Hotelera juan zan. Urrutizkin-zerrenda edo lista eskatu zuan. Urrutizkin-zerrendan emeretzi B. Cohen izeneko arkitu zituan. Zeñi deitu? Salerosle-zerrenda eskatu zuan orduan bitxiak saltzen zituan B. Cohen arkitzeko. Bai arkitu ere. Alperrik, ordea, dendako zuzenbidea zekarkin.

“Ez da San Franziskon biziko, inguruko erriren batean baizik” esanaz Berkeley, Oakland, Alameda eta beste urietako urrutizkin zerrendak miatzen asi zan. Etzuen ezer lortu. Aspertua, nekatua, erdi etsita urrutizkiña artu, eta San Franziskoko emeretzi B. Cohen-eri deitzen asi zan. Emeretzietatik lauk etzuten erantzun ere; iruk, urrutizkiña aspaldi utzi zuten; seik, ebreoeraz erantzun zioten; bostek, etzirala arek billatzen zuan B. Cohen erantzun zioten, eta emeretzigarrenak irlandatarra zala eta bere abizena Cohan idazten zala erantzun zion.

Berkeley, Oakland, Alameda, San Rafael, Saussalito, Mill Valley, San Mateo, Redwood City eta Palo Alto-ko B. Cohen guziai deitu zien urren, eta, alperrik izan zitzaiolako urrutizkiña utzi eta izerdia legortzen, kolka bera baño ere arroagoa eta ernegaziagoa atera zan. Kaleratu zanean gora begira gelditu zan. Bazidurin Alguztidunari laguntza eskatzen ziola ere.

Seiak ziran. Gure gizona oldozkor zegon. Baña nola ote zan Cohen, Cohan, Cohn, Kohn edo Coen?

“Berriro len bezela asi bear badet, gaur gauerako ilko naiz” esanaz, dendaruntz artu zuan berriro.

Idazkunak onela zion:

BITXITEGIA

B. COHN

“Ardo kontrabandistak nun ote diran jakin nai nuke nik orain –zion berekiko–. Oraintxe nekatu naiz eta ardo tanto bat ez litzaidake gaizki etorriko. Zin ere egingo nuen nik abizen au E-rekin idazten zala! Len ala ikusi detalakotan nago gañera oraindik ere!”.

Peck, urrutizkiña artuaz, San Franziskoko B. Cohn guziai deika asi zan berriro. Zortzi baziran izen ortakoak. Sei etxetik atereak ziran, zazpigarrenak mozkor abotsarekin erantzun zion eta zortzigarrenak erdi-gorra zalako oiuka itzegiten zuan.

“Gerrak badizkik bereak, baña baita pakeak ere”, zion Peck-ek.

Berriro urrutizkiña eskuan, San Franziskoren inguruetan bizi ziran B. Cohn guziai deika asi zan. Oraingoan, noizpait bear eta, asmatu zuan. Seigarren aldiz deitzerakotan erantzun zioten San Rafaeldik, berak nai zuan B. Cohn-en etxetik. Baña –beti bañaka–, sukaldariak esan zionez, B. Cohn jauna Simons zeritzan jaun baten etxean, Mill Valley-n zan.

Iru ziran abizen ortakoak Mill Valley-n. Berak nai zuanarekin itz egingo bazuan, irurai deitu bear izan zien. Antxe zan B. Cohn jauna, eta berarekin itz-egin nai zuana nor zan galdezka asi zitzaizkion:

–Heck jauna? Leck jauna?

Ixillunea.

Berriro lengo abotsak urrutizkiñez:

–Cohn jaunak dio ez dula Leck izenadun iñor ezagutzen; zer nai dezun jakin nai du eta apaltzen ari dala eta baezpadako arazoagatik ez lukela aparti utzi nai.

–Esan zaiozu mesedez Cohn jaunari Peck jaunak garrantzi aundiko arazoaz itz-egin nai diola.

–Metz jauna? Ben Metz jauna?

–Ez, ez eta ez! Peck! P... e... c... k?

–D... e... c... k?

–Ez!... P.

–C?

–P!

–A, bai! E... Zer geiago?

–C... k.

